



Creativity in education

nuria gonzález de la fuente



Vitoria-Gasteiz, 1966. Lehen Hezkuntzako irakaslea. Espezialitatea: ingelesa. Aholkularia Gasteizko Berritzegunean 2003tik, non Hezkuntza Marko Hirueleduna (HMH) ezartzeko lanean hasi zen, *ingelesaren sarrera goiztiarra* aurreikusten zuena (*DIP, DIP, DIP. Early start to English. Pre-primary*) eta *ingelese* edukien bidez irakastea (*INEBI. Content based approach to teaching and learning English. Primary*).

Berritzegunean garatutako hezkuntza-aholkularitzako lanak honako hauek izan dira: haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetan erreferentziazko aholkularitza ematea, mintegiak dinamizatzea eta klustroei eta irakasle-taldeei alderdi metodologikoei buruzko prestakuntza ematea: hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza (CLIL), ikaskuntza kooperatiboa, prestakuntza-ebaluazioa eta proiektuetan oinarritutako ikaskuntza... Aurretik, derrigorrezko irakaskuntzako maila guztietan (4-14) aritu zen irakasle, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat ikastetxe publikotan. Halaber, Anaya argitaletxearen hainbat curriculum-proposamen eta testulibururen egileetako bat da. Azkenik, *Art through English* (2008-2021) proiektuaren buru izan da, Artium Museoarekin egindako aliantzaren emaitza gisa, eta lankidetzan aritu da hainbat unibertsitatekin eta Ebaluazio eta Ikerketarako Euskal Erakundearekin (ISEI-IVEI), diagnostiko-ebaluazioen esparruan. Gaur egun, Vitoria-Gasteizko Umandi ikastolako irakalea.



infographics & maps

eduardo perez rodríguez



Ciudad Rodrigo, 1961. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakaslea Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat ikastetxetan. Aholkularia eta zuzendaria hainbat laguntza-zerbitzutan: Aholkularitza eta Baliabide Tegietan (CAR-ABT), Pedagogi eta Aholkularitza Tegietan (COP-PAT) eta Prestakuntzan eta Hezkuntza Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetan (Berritzeguneak). Hainbat postu izan ditu Euskal Autonomi Erkidegoko hezkuntza-

administrazioan: Hezkuntza Saileko aholkularia, hezkuntza berritzatzeko arduraduna... Hainbat argitaletxerekin elkarlanean aritu da bere curriculum-proposamenetan eta aholkulari pedagogiko gisa, estatu osoan zehar prestakuntza emanez: *ingurunearen ezagueraren didaktika, curriculum-proiektutik ikasgelako programaziora, kontzeptu-mapak...* Ingurunearen Ezaguera (SM argitaletxea) eta Geografia eta Historia (Erein argitaletxea, Elkar argitaletxea) arloetako proposamen didaktiko eta testuliburu ugariren editorea, koordinatzailea eta egilekidea. Era berean, Euskara irakasteko *Murgil* metodoaren egilekidea da (Erein argitaletxea) eta *Atlas Historikoa Euskal Herria munduan* liburuaren egilea (Elkar argitaletxea). Interneteko proposamen didaktiko askoren eta web master eta hezkuntza-eremuko webgune askotako edukiak sortzeko eta edizio lanen arduradun pedagogikoa.

Gaur egun, Vitoria-Gasteizko Prestakuntzan eta Berrikuntzan Laguntzeko Zentroko zuzendaria da (Berritzegune A01).